JOSKINTZA

Jarduera

Arropa eta diseinuak sortzea, josteko teknika berriak ikasiz.

Deskribapena

Ikastaro honen bidez, norberaren arropak edo jada eginda dauden patroiak (aldizkari espezializatuak) erabiliz jantziak berritzeko beharrezkoak diren joskintzako ezagutzak eman nahi zaizkie ikasleei. Neurriak hartzea, puntada desberdinak, joskintzari buruzko ezagutzak eta konponketak egiteko moldaketak.

Helburuak

- Norberaren jantziak optimizatzea.
- Josten ikasteko beharrezko teknikak erakustea ikasleei.
- Sormena sustatzea
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.
- Herritarren kultura-kezkak asetzea

Programa

1. **Hiruhilekoa**
   - Josteko makina ezagutzen eta behar bezala maneiatzen ikasi
   - Materialak eta horien erabilera zuzena ezagutzea
   - Neurriak behar bezala hartzea
   - Ehunak ezagutzea

2. **Hiruhilekoa**
   - Merkatuko patroi aldizkariak erabiltzen ikastea, diseinu berriak sortzen laguntzeko eta gure arropa pertsonalizatzeko
   - Patroi sinple bat hautatzea edo zati bat hautatzea gure jantziari gehitzeko: lepoak, mahukak, gonak, etab.
   - Prototipoa egitea
   - Diseinuak egiteko teknikak eta akaberak ikasiko ditugu

3. **Hiruhilekoa**
   - Ikasle bakoitzaren proiektuetan sakonduko dugu, eta prozesu horiek gainerako ikasleekin partekatuko ditugu, ikasle bakoitzarentzat hori baita aberasgarriena.

DONOSTIA KULTURA – KULTUR EKINTZA / ACCIÓN CULTURAL
Konstituzio plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 151 **E.** kulturekintza@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea.

Nori zuzendua

Helduak

Ikasleak eraman beharreko materiala

Ikasle bakoitzak bere proiektua aurrera eramateko material espezifikoa eraman beharko du: Telak, guraizeak, hariak, orratzak…